

**ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, BEASAINGO UDALERRIKO PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA BIDEETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO; KONTRATAZIOA EGINGO DA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA ENPLEGU ZENTRO BEREZIEK PARTE HARTUKO DUTE.**

Gobernu Batzordeak onartua, 2009ko

<b>ESKAITZA ZERTAN DEN</b>	
Helburua	BEASAINGO UDALERRIKO PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA BIDEETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA
Eskaintzaren prezioa	297.214 euro, BEZ barne
Kontratuaren iraupena	4 urte, beste bi (2) urterako luzatu daiteke
Kontratua esleitzeko prozedura	Prozedura irekia, publizitatearekin; parte hartu ahal izango dute enplegu zentro bereziek.
Prezioak berrikustea	Bai
Behin betiko bermea	Esleipenaren zenbatekoaren %5, BEZ kenduta
Enpresen sailkapena	0 taldea, 6 azpitaldea, B maila

## **I. KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Agiri honi jarraiki sinatutako kontratuaren helburua izango da **Beasaingo udalerriko parkeak, lorategiak, berdeguneak eta bideetako zuhaitzak zaintzea**, kontratu espedienteko dokumentazio teknikoaren arabera.

### **2. EGIKARITZEKO EPEA**

Kontratuak lau (4) urte iraungo du, sinatu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita. Luzatu ere egin daiteke, espresuki adierazita eta alderdiek adostuta, gehienez beste bi (2) urterako.

### **3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa urtean 297.214 eurokoa izango da (BEZ barne); zenbateko hori eskatzaileek hobetu dezakete.

Proposamenean, eskaintzaileek azaldu behar dute zerbitzua urtean zenbat kostako den, oinarrizko prezioa eta BEZ banakatuta.

### **4. FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko ez da finantzaketarik egongo urteko aurrekontuaren kargura. Aurrekontuen arloan eskumena duen organoak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar diren kredituak gordeko ditu.

### **5. ORDAINTZEKO MODUA**

Kontratuaren prezioa ordainduko da kobratzeko dagokion dokumentua aurkeztu eta onartzen denean, modu honetan:

Zerbitzuaren urteko prezioa 12 zati berdinetan banatuko da eta faktura bi hilabeteren buruan ordainduko da; faktura zerbitzuburuak adostu behar du.

Ziurtagiria ordaintzeko ezinbestekoa izango da hileko ziurtagiriarekin batera baldintza teknikoen agiriko 19. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztea.

### **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratuko prezioak berrikusi ahal izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (77. artikulutik 82. artikulura) eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorraren (104, 105 eta 106 artikulua) arabera.

Hona hemen prezioa berrikusteko aplikatuko den formula:

Eskaintako prezioa 2009ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, urtean behin eta hurrenez hurren (luzapenak barne), prezioa eguneratuko da EAeko Kontsumorako Prezioen Urteko Indizea (KPI) aplikatuta (aurreko urtekoa); indize hori Estatistika Institutu Nazionalak argitaratzen du. Berrikusiko da, bakarrik, berrikusteko eskubidea dagoen prezioaren parte, zehazki, egikaritze materialaren gastuari (EM) dagozkion lau kapituluak: langileen gastua (LG), gastu materiala (GM), mantentze-lanetako gastua (MG) eta amortizazio gastua (AG). Aitzitik, gastu orokorren eta industri irabazien (GO eta II) portzentajea (%) ezin da berrikusi.

Eguneratzen den urte bakoitzeko zerbitzuaren azken prezioa zein den jakiteko, berrikusitako egikaritze materialerako gastuari (EM) gastu orokorren (GO) eta industri irabazien (II) portzentajea aplikatu behar zaio eta, azkenik, aipatu kontzeptu horien baturari (EM + GO + II) prezioa eguneratzen den urte horretan indarrean dagoen Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

EAeko Kontsumorako Prezioen Urteko Indizea negatiboa bada, kontratuko prezioa aurreko ekitaldiko berbera izango da.

## 7. BERMEAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 83. artikulua dioen moduan, kontratuaren behin-behineko esleipendunak, dagozkion betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, esleipenaren zenbatekoaren %5 (BEZ kenduta) behin betiko berme gisa jarri behar du.

Berme hori osatzeko hamabost egun baliodun izango ditu, kontratugilearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Bermea osatu dezake Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan agertzen den edozein bitarteko baliatuta.

Bermea bueltatuko da (osorik edo parte bat) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan zehaztutakoari jarraiki, behin bermearen epea amaitzen denean eta esleipendunak kontratuko betebeharrak guztiak betetzen dituzenean.

## 8. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua egikarituko da kontratistaren arrisku eta menturara.

Kontratua gauzatzeko kontuan hartu behar dira agiri honetako klausulak eta, hala badagokie, espedienteko zehazpen teknikoak. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu eta eskumen horiek baliatuko ditu idatziz zein ahoz.

Kontratua okertzen bada kontratugileari eta kontratugilearen mende dauden pertsoneri egozteko moduko jarduera edo hutsegiteengatik, Administrazioak egokiak iruditzen zaizkion neurriak har ditzake, kontratua berriz ere behar bezala gauzatu dadin lortze aldera.

## 9. KONTRATISTAREN LAN BETEKIZUNAK

a) Lan, Gizarte Segurantzza eta segurtasun alorreko lege xedapenak betetzea. Betetzen ez baditu, Administrazioak ez du erantzukizunik izango.

b) Kontratua gauzatzea Klausula Ekonomiko, Administratibo eta Teknikoen Agiri honetan eta kontratuari buruzko gainerako dokumentuetan ezarri bezala.

c) Kontratuaren helburua eta kontratuan jarritako mugak errespetatzea, eta kontratua arduraz eta behar bezala egikaritzen dela bermatuta betetzea.

d) Beasaingo Udalak emandako jarraibideak kontuan hartzea eta Zerbitzu Publikoen ordezkariari edo horretarako izendatutako langileari kontratuaren egikaritzea ikuskatzen uztea.

e) Zerbitzuan kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren langile guztiak jartzea, baita hutsak betetzeko ere, zerbitzua oker ez dadin.

f) Zerbitzua behar bezala emateko behar diren makinak eta produktuak jartzea. Ikuskaritza teknikoaren ondoren tresnak edota makinak berritzea eskatu daiteke, eskaintzen den zerbitzurako egokiak ez badira; kalteak ez dira ordainduko.

g) Kontratua formalizatu aurretik, besteri (pertsoneri edo gauzei) eragindako kalteetarako erantzukizun zibileko aseguru poliza bat sinatzea, 601.012,10 euroko bermekoa.

Kontratu hau subrogatu egingo da eta esleipendunak enplegatzaile gisa subrogatu beharko du dokumentazio osagarrian zehaztutako lan harremanetan. SPKLko 104. artikulua arabera, informazio hori nahi duten eskatzaileei emango zaie, dagozkien lan gastuak ebaluatu ditzaten.

## 10. KONTRATISTEN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BESTERI ERAGINDAKO KALTEETAN

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko egiten diren jardueren ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 198. artikuluan zehaztu bezala.

## 11. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu dezake ustekabekoei aurre egiteko, interes publikoa betetze aldera, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Horrek ez

du esan nahi Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 284.c) artikulua eta agiri teknikoko bigarren artikulua bete behar ez direnik.

## 12. BERMEA JASOTZEA ETA BERMEAREN EPEA

Kontratua nolakoa den ikusita, ez da berme eperik jarri.

## 13. KONTRATISTARENTZAKO ZIGORRAK, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK

### A) KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK

Kontratua gauzatzeko epea (epe osoa edo epe partzialak) gainditzen bada eta errua kontratistarena bada, Administrazioak bi aukera dauzka: batetik, kontratua bertan behera uztea eta, beraz, kontratistari bermea ez bueltatzea; eta bestetik, kontratistari kontratuko prezioaren 1.000 euroko egunero 0,20ko proportzioa ordainaraztea.

### B) PRESTAZIOEN EGIKARITZE PARTZIALA

a) Kontratistak, bere erruz ez badu betetzen kontratuan ezarritako prestazioen egikaritze partziala, Administrazioak bi aukera ditu: batetik, kontratua bertan behera uztea; eta bestetik, kontratuaren prezio osoaren %10 ordainaraztea.

b) Kontratistak prestazioa ez badu behar bezala ematen, Administrazioak kontratuko aurrekontuaren %10 ordainaraz diezaioke.

## 14. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOTIAK

Obra kontratua bertan behera uzteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 206 eta 284 artikuluetan jasotakoak.

## 15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Honako hauek dira Administrazioaren eskumenak: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak argitzea, kontratua interes publikoa dela eta aldatzea, kontratua bertan behera uztea eta horren eraginak zehaztea. Hori, betiere, mugak gainditu gabe eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko betekizunak eta ondorioak kontuan hartuta.

## **II. KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### 16. KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratua esleituko da prozedura irekia medio eta enplegu zentro bereziek aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, SPKLko zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Kontratua esleitze aldera, eskaintzak beheko irizpide horien arabera balioetsiko dira; irizpideak lehentasunaren arabera daude zerrendatuta, dagokien puntuazioa eta guzti.

**Irizpideak:**

- 1. irizpidea: proposamen ekonomikoa; **0 eta 35 puntu** bitarteko balioa izango du.
- 2. irizpidea: kalitate teknikoa; **0 eta 25 puntu** bitarteko balioa izango du.
- 3. irizpidea: langileen antolamendua; **0 eta 15 puntu** bitarteko balioa izango du.
- 4. irizpidea: instalazioak, makinak eta ibilgailuak; **0 eta 15 puntu** bitarteko balioa izango du.
- 5. irizpidea: hobekuntzak; **0 eta 10 puntu** bitarteko balioa izango du.

1. irizpidea: proposamen ekonomikoa.

Proposamen ekonomikoak puntuazio sistema honen arabera balioetsiko dira:

- Eskaintzen den prezioa agiri honetako 3. klausulan ezarritakoa baino handiago bada, proposamena ez da onartuko.
- Proposamen ekonomikoak **0 eta 35 puntu** bitarteko balioa izango du.

Baja eta batezbesteko baja

Batezbesteko proposamen ekonomikoa izango da baliozko proposamen ekonomikoen batura zati proposamen kopurua.

Proposamenaren baja izango da ehun eta proposamen horri dagokion ehunekoaren arteko aldea, eskaintza motaren arabera.

Batezbesteko proposamen ekonomikoaren bajari batezbesteko baja esaten zaio.

- Baja handiena (A baja) daukan proposamenari emango zaio puntu gehien, hau da, 35 puntu. Gainerako B proposamenak formula honen arabera balioetsiko dira:

$$35 - (A \text{ baja} - B \text{ baja})$$

Eragiketa horren emaitza negatiboa bada, puntuazioa zero (0) izango da.

2. irizpidea: kalitate teknikoa.

Kalitate teknikoak 0 eta 25 puntu arteko balioa izango du.

Irizpide honetan kontuan hartuko dira eskaintzaileek aurkeztutako dokumentazio teknikoaren kalitatea eta dokumentazio horretatik atera daitezkeen ondorioak kontratuaren helburu diren zerbitzuak antolatzeko, gauzatzeko eta segimendua egiteko moduaren gainean; betiere, zerbitzuaren errendimendua eta kalitatea hobezinak izan behar dutela oinarri hartuta.

Horregatik, oso garrantzitsua da honako hauek zehaztea:

Lan eremu, maiztasun eta mota bakoitzerako lan plana.  
Lanen segimendu, erregistro eta kontrolaren informatizazioa.  
Inbentarioaren eguneratzea.  
Ikuskaritza eta zaintza programa.

Dokumentazioa ez bada aurkezten edo zehatza edo nahikoa ez bada, puntuazioa asko jaitsiko da, zerbitzua kalitatezkoa bada ere.

### 3. irizpidea: langileak.

Langileen arloak 0 eta 15 puntu arteko balioa izango du.

Atal honetan balioetsiko dira kontratuaren helburu diren lanak egiteko jarritako langileak eta langile horien antolamendua. Honako hauek zehaztu behar dira:

Enpresaren organigrama, kontratua gauzatzeko erantzukizuna duten langileen (teknikari eta arduradunen) kualifikazio profesionala eta esperientzia, langile minusbaliatuen maila eta esperientzia profesionala, prestakuntza politika eta langileentzako laguntza zerbitzua (baliabideak eta programa adierazita), eta laneko arriskuen prebentzioa gestionatzeko sistemak.

### 4. irizpidea: instalazioak, makinak eta ibilgailuak.

Arlo honek 0 eta 15 puntu bitarteko balioa izango du.

Kontuan hartuko dira eskaintzaileek dokumentazioan proposatutako ibilgailu, makina eta instalazioak eta horien antolamendua. Betiere, bat etorri behar dute baldintza teknikoaren agiri honetako 9, 11 eta 12 artikuluetan ezarritako zehazpenekin.

Dokumentazioa ez bada aurkezten edo zehatza edo nahikoa ez bada, puntuazioa asko jaitsiko da, zerbitzua kalitatezkoa bada ere.

### 5. irizpidea: Hobekuntzak.

Hobekuntzek 0 eta 10 puntu bitarteko balioa izango dute.

Kontuan hartuko dira, bakarrik, zerbitzuaren prestazioaren kalitatea nabarmen hobetzen duten gaiak, baldin eta Udalak ordainketarik ez badu egin behar eta eskaintzaileek balioespen ekonomikoa egin badute.

## 17. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan parte har dezakete pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta zuzenbide eta jarduera ahalmenak badituzte, ekonomia, finantza, teknika eta lanbide kaudimena ziurtatzen badute eta ez badute Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluan aipatzen diren kontratatzeko debekurik. Kaudimena ziurtatu eta ebaluatuko da 18.

klausulako b, c eta d letretan zehaztutako baliabideekin; klausula horretan agertzen dira A gutun-azalean sartu behar diren dokumentuak (kontratatzeko ahalmena eta kaudimena).

Parte har dezakete, gainera, bere kasa edo baimendutako pertsona baten bitartez (ordezkoari horretarako ahalmena eman behar zaio). Pertsona juridiko baten ordezkaria erakundeko kideren bat izanez gero, ordezkari izateko eskumena duela ziurtatu behar du, dokumentu baten bitartez. Bi kasuetan, ordezkariak aipatu ezintasunen bat badauka, ezingo du parte hartu.

Azkenik, enpresaburuek enpresa gaikuntza edo gaikuntza profesionala eduki behar dute, kontratuaren helburu den jarduera edo prestazioari dagokiona.

## 18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea eta dagozkion agiri eta dokumentuak aztertzeko moduan egongo dira, kontratazio organoko kontratugilearen profilean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte. Aipatu profilera web orri honetatik sar daiteke: [www.beasain.net](http://www.beasain.net)  
Proposamenak aurkeztu behar dira iragarkia argitaratu eta **hamabost egun naturalen buruan**, udal erregistroan, goizeko 8.30etik eguerdiko 13.30era. Epea berez larunbatean, igandean edo jaiegunen batean amaitzen bada, hurrengo egun naturalean amaituko da.

Eskaintzaileek agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehiago eskatzen badute, proposamenak aurkezteko jarritako epea baino sei egun lehenago jasoko dute, gehienez. Betiere, eskaera egin behar da proposamenak aurkezteko epea baino zortzi egun lehenago.

SPKLko 142.3 artikulua arabera, agirien edo dokumentazio osagarrien gainean eskatutako informazioa ez bada ematen jarritako epean, edo eskaintzak egin badaitezke soilik lekua bisitatu ondoren edo agiriari atxikitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu eta gero, eskaintzak hartzeko epea luzatu egingo da, hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazioa jasotzeko behar adina.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotako proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta Correosera epea amaitu baino lehen eraman, salbu kontratazio organoari jakinarazten bazaio, telex, fax edo telegrama bitartez, eskaintza korreoz bidalitako egun berean jaso zela. Iragarkia posta elektronikoko bidezko bidalketen baliotasunari dagokionez, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 80.4 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Eskaintzaileek hiru gutun-azal aurkeztu behar dituzte (A, B eta C), itxita eta gainean honako hau idatzita: **“PROPOSAMENA, BEASAINGO UDALERRIKO PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA BIDEETAKO ZUHAITZAK ZAINZKEKO ZERBITZUA ESKAINTZEKO; KONTRATAZIOA EGINGO DA PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA ENPLEGU ZENTRO BEREZIEK PARTE HARTUKO DUTE”**.



Gutun-azal guztietan jarri behar dira enpresaren izena, proposamena sinatu duenaren izen-abizenak eta izaera; bi gutun-azalak sinatu egin behar dira, baita ere.

Gutun-azaletan adierazi behar da, gainera, barruan zer dagoen:

A GUTUN-AZALA: KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA.

B GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA AUTOMATIKOKI EZIN EBALUATU DAITEZKEEN GAINERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK.

C GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKO EBALUATU DAITEZKEEN GAINERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEAK.

**A gutun-azalak “KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA” azpitulua izango du, eta barruan honako hauek:**

a) Enpresaburuaren izaera juridikoa edo, hala badagokio, ordezkari izateko ahalmena ziurtatzen duten dokumentuak. Izaera juridikoa honela egiaztatuko da:

a.1. Eskatzailea pertsona juridikoa bada, aurkeztu behar ditu osaera eskritura eta, hala badagokio, aldaketa eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala erregistratuak. Horrez gain, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) ere aurkeztu behar du, merkataritza araudiaren arabera nahitaez izena eman behar badu. Izena ematea nahitaezkoa bada, jarduteko ahalmena egiaztatuko da osaera eskritura edo dokumentuaren, estatutuen edo sorrera aktaren bitartez; dokumentu horietan, betiere, pertsona juridikoaren jardura erregulatzen duten arauak agertu behar dute eta arau horiek, hala badagokie, Erregistro Ofizialean erregistratuta egon behar dute.

Europar Batasuneko Espainia ez beste estatu kideetako enpresaburuek egiaztatu behar dute jatorrizko erregistroan izena emanda daudela, bizi diren estatuko legediaren arabera; hala ez bada, zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat aurkeztu behar dute, erkidegoko xedapenen arabera.

a.2. Eskatzaileak bere izenean aurkeztu badu eskaintza, nortasun agiri nazionala (NAN) edo dagokion estatuko dokumentu baliokidea aurkeztu behar du.

a.3. Beste baten izenean proposamenak sinatzen dituztenek NANaren kopia eta horretarako ahalmena dutenaren ziurtagiria aurkeztu behar dituzte.

b) Kontratatzen **sailkapena** ziurtatzen duen dokumentua; sailkapen horren arabera, kontratistak gai izan behar du maila, talde eta azpitalde hauetako zerbitzuak kontratatzeko:

. - 0 taldea, 6 azpitaldea, B maila

c) Erregistroan enplegu zentro berezi gisa izena emanda dagoenaren dokumentua.

d) Eskatzailearen ekonomia, finantza, teknika eta lanbide kaudimenaren frogagiriak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 64. artikuluko a letran eta 67. artikuluko a, b, e eta h letretan ezarritako moduan.

e) Enpresaburu talde batek aldi baterako enpresa elkarte osatzen badu, enpresa bakoitzak egiaztatu behar du ahalmena eta kaudimena dituela, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, esleipendun izanez gero ABEEa osatuko dutenaren konpromisoa entregatu behar du. Gainera, proposamenean azaldu behar dute enpresa bakoitzak zer lan egingo duen, guztien kaudimen betekizunak zehazte eta egiaztatze aldera.

f) Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49. artikuluen arabera, kontratuak egiteko debekurik ez duenaren aitorpena. Aitorpen horretan azaldu behar da, baita ere, zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela, salbu egoera horren egiaztagiriak aurkezten badira.

g) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan kontratuari dagokion jardueraren epigrafean alta emanda dagoenaren ziurtagiria (alta, hasitako ekitaldikoa bada, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan). Horrez gain, aipatu zergan baja eman ez denaren aitorpena ere aurkeztu behar da.

h) Atzerriko enpresek aitorpen osagarri bat aurkeztu behar dute, adierazteko kontratuan intzidentzia zuzen edo zeharkakorik gertatzen bada, Espainiako epaitegi eta epaimahaien jurisdikzioari men egingo dietela eta, hala badagokie, atzerrian dagokien foru jurisdikzionalari uko egingo dietela.

**OHARRA:** a) eta b) letrei dagokienez, ziurtagiriak izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Eskatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialekoak, Estatuko Eskatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialekoak (helbidea EAE ez beste erkidego batean duten enpresentzat) edo erkidegoko sailkapen ziurtagiriak, SPKLko 73. artikuluen arabera. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera eskatzaileak aitorpen gehigarri bat aurkeztu behar du, azaltzeko ziurtagirian agertzen den egoera ez dela aldatu.

Aurkeztu behar dira dokumentu originalak edo kopiak.

## **B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI EZIN EBALUATU DAITEZKEEN GAINERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA**

Gutun-azal honetan sartu behar dira proposamen teknikoari buruzko dokumentuak eta automatikoki ezin ebaluatu daitezkeen esleipen irizpideen ziurtagiriak; irizpide horiek agiri honen 16. klausulan daude azalduta.

## **C GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKO EBALUATU DAITEZKEEN GAINERAKO BALIOESPEN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA**

Gutun-azal horretan honako dokumentu hauek sartu behar dira:

a) **PROPOSAMEN EKONOMIKO** bat, eredu honi jarraiki idatzia:

Nik, .....  
 jaunak/andreak (Helbidea: .....

..... NAN:

..... Telefono zenbakia: ..... Helbide elektronikoa: .....

erabateko zuzenbide eta jarduera ahalmenarekin, nire izenean (edo .....

jaunaren/andreaken ordezkoko gisa

(Helbidea: .....

Telefono zenbakia: ..... NAN edo IFZ, pertsona fisikoa edo juridikoa den: .....)

jakinda .....(a)k prozedura ireki bat abiatu duela **BEASAINGO UDALERRIKO PARKEAK, LORATEGIAK, BERDEGUNEAK ETA BIDEETAKO ZUHAITZAK ZAINZKEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ETA ENPLEGU BEREZIKO ZENTROEK PARTE HARTU AHAL IZANGO DUTELA,**

honako aitortpen hau egiten dut:

1. Kontratua gauzatuko dut ..... euroren truke (horri BEZren %16 gehitu behar zaio, hau da, ..... euro) eta ..... epean. Prezioan kontzeptu guztiak sartzen dira, edozein zerga alorreko zergak, gastuak, tasak eta arielak barne, baita kontratistaren industri irabazia ere.

2) Irakurri ditut Baldintza Teknikoen Agiria, Administrazio Klausula Partikularren Agiria eta kontratua arautzen duten gainerako dokumentuak, eta ontzat hartzen ditut, oso-  
 osorik.

3) Ordezkatzen dudana enpresak irekiera, instalazio eta funtzionamenduaren gainean indarrean dagoen araudiko betekizun eta eginbehar guztiak betetzen ditu.

.....n, 20..... (e)ko ..... ren ..... (e)an.

Sinadura

b) **TXOSTEN EKONOMIKOA**, gutxienez honako hauek azaltzeko:

- Aplikatuko den hitzarmena.
- Urteko aurrekontua egiteko baliatutako langile eta materialaren gastuak.
- Mantentze-lanen gastuak.
- Ibilgailuak eta makinak amortizatzeko gastuak.

Urteko aurrekontua, kontzeptu hauek banakatuta:

I. Egikaritze materialaren gastua (EM). Gastu horrek lau kapitulu izango ditu:

- Langileen gastuak (LG): kontratuko zerbitzua emateko zuzeneko eskulana. Honako hauek sartu behar dira: oinarrizko ordainsariak, osagarriak, gizarte aseguruak, kontratatutako langileen ordezkapenak (oporrak, sindikatu lanak, bajak eta abar direla eta). Langileentzako prestakuntza eta laguntza zerbitzua ere sartu behar dira.
- Gastu materiala (GM), hau da, zerbitzua emateko ezinbestekoak diren baina Administrazioak ematen ez dituen baliabide materialen gastua (instalazioak; lanerako arropa; pertsonak babesteko, segurtasuneko eta laneko osasuneko tresnak, e.a.).
- Mantentze-lanetako gastua (MLG), alegia erabili behar diren ibilgailu, makina eta tresnen mantentze-lanari, zaintzari eta kontsumoari dagokien gastua.
- Amortizazio gastuak (AG), hau da, ibilgailu eta makinetan egindako inbertsioenak.

II. Gastu orokorren (GO) eta industri irabaziaren (II) portzentajea (%), egikaritze materialean (EM) aplikatua.

Aurreko hiru kontzeptuen baturaren (EM+GO+II) zerga-oinarriari azkenean indarrean dagoen Balio Erantsiaren Zerga (BEZ, %16) aplikatuko zaio. Zerga-oinarriaren eta dagokion BEZren batura izango da zerbitzuaren urteko aurrekontua.

## 19. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaiko kideak hauek izango dira:

- Alkatea edo hark eskuordetutako zinegotzia.
- Zerbitzu batzordeko kideak.
- Kontu-hartzailea.
- Udal idazkaria.
- Zerbitzuko burua.

## 20. DOKUMENTUAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, Kontratazio Mahaiak A gutun-azaleko edukia aztertuko du eta eskaintzaileek garaiz eta forman aurkeztutako dokumentuak balioetsiko ditu.

Horretarako mahaiko kideek argibideak edo dokumentu osagarriak eska ditzakete eskaintzaileen ahalmen eta kaudimenaren inguruan. Dokumentu horiek, araudiko 22. artikulua dioenaren arabera, bost egun naturalen buruan aurkeztu behar dira. Mahaiko kideek ahoz egingo dituzte argibide eta informazio eskariak, eta kontratazio organoaren iragarki oholean eta kontratugilearen profilean ere jarriko dituzte. Dokumentazioan akatsak badaude, Mahaiak gauza bera egingo du; kasu horretan, ordea, eskatzaileek hiru egun baliodun izango dituzte akatsak konpontzeko.

Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa balioetsi eta eskatzaileek akatsak konpondu ondoren, aukeraketa irizpideekin bat datozen enpresen zerrenda egingo du (irizpideak agiri honetako 18. klausulan daude jasota) eta jakinaraziko du zeintzuk aukeratu dituen, zeintzuk baztertu dituen eta zergatik.

Eskaintzak ebaluatuko dira agiri honetako 16. klausulan ezarritako esleipen irizpideak kontuan hartuta eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 134.2 artikulua arabera.

Eskatutako dokumenturen bat ez bada aurkeztu edo beste era batera aurkeztu bada, Mahaiak ez du proposamena onartuko.

Horretarako, Mahaiko kideek B gutun-azaleko dokumentazioa aztertuko dute, hau da, automatikoki ezin ebaluatu daitezkeen balioespen irizpideen gaineko dokumentazio teknikoa. Halaber, beharrezko iruditzen zaizkien txosten teknikoak eskatuko dituzte. Proposamen teknikoak agiri honetan ezarritako balioespen irizpideen arabera ebaluatuko dituzte.

Azkenik, Kontratazio Mahaiak, kontratugilearen profilean jarritako tokian eta egunean, C gutun-azalak irekiko ditu. Gutun-azal horietan daude proposamen ekonomikoak eta automatikoki ebaluatu daitezkeen balioespen irizpideen inguruko egiaztagiriak. Proposamen ekonomikoak irakurri ondoren, Mahaiak puntuatu egingo ditu, agiri honetan jasotako balioespen irizpidearen arabera.

Gero, Kontratazio Mahaiak Kontratazio Organoari igorriko dizkio aurkeztutako proposamenei balioespen irizpideak aplikatu ondoren lortutako emaitza, akta, esleipen proposamenarekin batera emandako dokumentazioa eta egoki iruditzen zaizkion oharra.

## 21. KONTRATUA ESLEITZEA, FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio Organoak kontratua esleituko dio, behin-behinekoz, proposamen onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileari.

Behin-behineko esleipena egingo da proposamenak ireki eta hiru hilabeteren buruan, gehienez. Epe horri hamabost egun gehituko zaizkio, SPKLko 145.3 artikulua araberan, SPKLko 136.3 artikuluan ezarritako izapideak egin behar direnean, proposamen bat edo gehiago neurrigabeak edo ohiz kanpokoak badira.

Eskaintzak neurrigabe edo ohiz kanpokat joko dira, eskaintzaileak esan beharrekoa entzun ondoren eta dagokion zerbitzuko aholkularitza tekniko jaso ondoren.

Kasu horretan, Kontratazio Organoak, eskaintzaileak emandako justifikazioa eta eskatutako txostenak aztertu ondoren, proposamen onuragarriari esleituko dio kontratua, behin-behinekoz, baldin eta Administrazioak behar bezala bete dezakeenaren uste osoa badago; edo, bestela, neurrigabea edo ohiz kanpoko ez den proposamenari.

Kontratugilearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hamabost egun baliodunen buruan, behin-behineko esleipendunak honako hauek egin behar ditu:

- a) Zerga betekizunak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dauzkanaren ziurtagiria aurkeztea, salbu ziurtagiri horiek proposamenarekin batera entregatu baditu. Hala badagokio, gainera, kontratua gauzatzeko aldera jarriko dituen bitartekoak eskura dauzkanaren ziurtagiriak entregatzea.
- b) Behin betiko bermea osatzea eta, hala badagokio, baita berme osagarria ere.
- c) Agiri teknikoko 9. artikuluan aipatzen den lokala eskura duenaren ziurtagiria aurkeztea.

Behin-behineko esleipena behin betikoa izango da lehen aipatu epea amaitu eta hamar egun baliodunen buruan; betiere, esleipendunak dagozkion eginbeharrak egin baditu. Dagozkion betebeharrak ez baditu betetzen, kontratua ez zaio behin betiko emango behin-behineko esleipendunari.

SPKLko 139.2 artikulua araberan, esleipendunak uko egiten badiu kontratua sinatzeari edo prozedura aurrera eramateari, eskaintzaileei eragindako gastuen ordaina Administrazioak jarriko du, bi alderdiek esan beharrekoa entzun ondoren.

Kontratua hobetuko da Kontratazio Organoak behin betiko esleituta. Esleipendunari jakinarazpena bidaliko zaio eta hark, hamar egun baliodunen buruan (jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita), honako hauek egin beharko ditu:

- a) Publizitate ofizialeko gastuak ordaintzea (egonez gero), gehienez 500 euro. Publizitatea aldizkari batean jarriko da, behin bakarrik.
- b) Administrazioa bertaratzea kontratua dokumentu administratibo batean formalizatzeko.

Kontratua ez bada formalizatzean kontratistaren erruz, Administrazioak kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, interesatuak esan beharrekoa entzun ondoren, kalte ordainketekin.

### **III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENA**

#### **22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Agiri honen arabera egiten den kontratua administratiboa izango da eta kontratuan aurreikusi gabekoetarako honako hauek hartuko dira aintzat: urriaren 30eko 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; Herri Administrazioen Kontratuaren Legeko Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua medio onartua; eta herri administrazioen kontratuetan aplikatu behar diren gainerako arauak.

Administrazio Klausula Partikularren Agiri hau eta espedienteko dokumentazio tekniko bat ez badatoz, Agiriak izango du lehentasuna.

#### **23. DATU PERTSONALAK BABESTEIA**

Kontratua egiteko datu pertsonalak behar badira, kontratistak SPKLko 31. xedapen gehigarrian Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren gainean ezarritakoa bete beharko du.

#### **24. JURISDIKZIO ESKUMENA**

Kontratua betetzerakoan sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan ebatziko dira. Hala ere, alderdiek adostu dezakete auziak ebatzeko arbitrajera jotzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

.....n, 20..... (e)ko ..... ren ..... (e)an.

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE PARQUES, JARDINES ZONAS VERDES Y ARBOLADO VIARIO DEL MUNICIPIO DE BEASAIN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO RESERVÁNDOSE LA PARTICIPACIÓN EN ÉL A CENTROS ESPECIALES DE EMPLEO.**

Aprobado por la Comisión de Gobierno en sesión

de 2009

<b>CARACTERISTICAS DE LA LICITACION</b>	
Objeto	CONTRATACION DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE PARQUES, JARDINES ZONAS VERDES Y ARBOLADO VIARIO DEL MUNICIPIO DE BEASAIN
Precio de licitación	297.214 € IVA incluido
Plazo de duración del contrato	4 años, prorrogable dos (2) años más
Procedimiento de Contratación	Procedimiento abierto con publicidad reservándose la participación en él a centros especiales de empleo.
Revisión de precios	Sí
Garantía Definitiva	5% del importe de adjudicación, excluido el IVA
Clasificación empresarial	Grupo 0, Subgrupo 6, Categoría B



## **I.- CONTENIDO DEL CONTRATO**

### **1. OBJETO DEL CONTRATO**

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto **el servicio de mantenimiento de parques, jardines zonas verdes y arbolado viario del municipio de Beasain**, de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente que tendrá carácter contractual.

### **2. PLAZO DE EJECUCIÓN**

El plazo total de ejecución de la prestación será de 4 años, contado a partir del siguiente día hábil al de la firma del contrato, siendo susceptible de prórroga expresa y mutuamente acordada, sin que la duración total de ésta pueda exceder de dos (2) años.

### **3. PRECIO DEL CONTRATO**

El precio del contrato, IVA incluido, será de 297.214 €/anuales, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores.

En su propuesta los licitadores indicaran el precio total anual por la realización del servicio, desglosando el precio base y el IVA.

### **4. FINANCIACIÓN**

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso. Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

### **5. FORMA DE PAGO**

El pago del precio del contrato se realizará contra la presentación y conformidad del correspondiente documento cobratorio y en la siguiente forma:

El precio anual del servicio se dividirá en 12 partes iguales, abonándose dentro del plazo de dos meses de la presentación de la correspondiente factura, debidamente conformada por el Jefe de Servicios.

No obstante para el abono de la certificación será requisito indispensable presentar junto con la certificación mensual, la documentación a que se hace referencia en el art. 19 del pliego técnico.

## 6. REVISIÓN DE PRECIOS

El presente contrato podrá ser objeto de revisión de precios, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 77 a 82 de la Ley de Contratos del Sector Público y 104 a 106 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

La fórmula a aplicar en la revisión será la siguiente:

El precio ofertado tendrá plena vigencia hasta el 31 de diciembre del año 2.009. A partir del 1 de enero del año 2.010, una sola vez año y sucesivamente, incluidas las prórrogas, el precio será actualizado mediante la aplicación del Índice Anual de Precios al Consumo (I.P.C.) de la CCAA Vasca, publicado por el Instituto Nacional de Estadística (I.N.E.), correspondiente al año inmediatamente anterior a su aplicación. La revisión se aplicará únicamente a la parte del precio con derecho a esta revisión y más concretamente, afectará a los cuatro capítulos que conforman el Coste de Ejecución Material (E.M.): el "Coste de Personal" (C.P.), el "Coste de Material" (C.M.) , el " Coste de Mantenimiento" (CMT) y el "Coste de Amortización". Por el contrario, el porcentaje (%) de "Gastos Generales" y "Beneficio Industrial" (G.G. y B.I.) no estará sujeto a revisión alguna.

El precio final del Servicio para cada año de actualización, se obtendrá como resultado de aplicar sobre este Coste de Ejecución Material (E.M.) revisado, el porcentaje de Gastos Generales (G.G.) y Beneficio Industrial (B.I.), aplicando finalmente a la suma de los conceptos anteriores (E.M. + G.G. y B.I.), el Impuesto sobre el Valor Añadido (I.V.A.) vigente en cada año de actualización.

En el caso de que Índice Anual de Precios al Consumo (I.P.C.) de la CCAA Vasca fuese negativo, la revisión supondría que el precio de la contrata se mantendría igual al del ejercicio anterior.

## 7. GARANTÍAS

